



HAL
open science

Euskalduna zertarik ageri den

Jean Haritschelhar

► **To cite this version:**

Jean Haritschelhar. Euskalduna zertarik ageri den. Federiko Krutwig-i omenaldia - Homenaje a Federico Krutwig - Hommage à Federico Krutwig, 1997, Iker - 10, pp.133-145. artxibo-00085188

HAL Id: artxibo-00085188

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00085188v1>

Submitted on 12 Jul 2006

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

EUSKALDUNA ZERTARIK AGERI DEN

Hauteskundeak hurbiltzen ari dira Frantzian. Errepublika, legez bederen, finkatua da Wallon diputatuaren emendioari esker (1875-eko urtarrilaren 30-ean) eta gero Lege nagusiari esker, 1875-eko otsailaren 24-ean, 26-an eta uztailaren 16-an bozkatua. Frantzia osoki zatitua da : errepublikanoen kontra badira erregetiarrak eta enperadorearen alde direnak. Emeki emeki errepublikanoak irabazle agertzen dira hauteskundeetan.

1886-eko abuztuaren 1-an sortzen da Pauen errepublikano astekaria "*Le Réveil basque*" deritzana. Sortzailea : Berdoly jauna, Mauleko suprefet izana eta kontseilari orokorra. Denek badakite Mauleko hauteskunde-eremuan aurkeztuko dela diputatu-gai gisa.

1887-ko martxoaren 15-an Louis Etcheverry Donazahartarra sortzez, estudioak eginik Parisen Euskal Herriratzen da eta sortzen du "*Eskualduna*" eskuindar eta apezen aldeko astekaria "*Le Réveil basque*" delakoaren kontra joaiteko, berak nahi baitu bere burua aurkeztu datozen hauteskundeetan Mauleko hauteskunde-eremuan.

Astekariaren tituluak euskaldun itxura dauka bainan ez du horrek erran nahi euskaraz idatzia dela bakarrik *Diccionario enciclopédico vasco*-ko artikuluak dion bezala : « *El Eskualduna sale totalmente en euskara lo que era una verdadera novedad en su tiempo* »¹. Hain zuzen, hona lehenbiziko artikulu nagusia, Louis Etcheverry-k sinatua eta frantsesez idatzia.

ESKUALDUNA

n° 1

Mardi 15 mars 1887

Notre programme :

Notre journal est fait par des Basques pour des Basques, c'est dire ce qu'il sera.

Il sera avant tout le défenseur passionné de toutes les vieilles traditions du pays au premier rang desquelles nous plaçons son invincible attachement à la religion catholique sincèrement pratiquée.

Il sera spécialement dévoué aux intérêts agricoles, intérêts qui priment tous les autres et qui souffrent, hélas ! cruellement aujourd'hui.

Sa ligne politique s'inspirera des aspirations à la fois démocratiques et autoritaires des Basques. Le peuple basque est une société démocratique qui réclame une triple autorité pour

¹ *Diccionario enciclopédico vasco*, Vol. XI (Ento-Esubi) Auñamendi, San Sebastián, 270 or.

subsister : l'autorité sociale des chefs de famille, l'autorité religieuse du clergé, l'autorité politique d'un gouvernement stable, protecteur de la famille et de la religion. Grâce à Dieu les deux premières autorités sont encore debout et fonctionnent ; mais la troisième nous manque ou, infidèle à sa mission, quand elle se manifeste c'est pour entraver les deux autres. Notre premier besoin est d'avoir un gouvernement fort et équitable. La République paraît incapable de nous le donner. Si elle ne se réforme pas, il faut le demander à un autre régime. Parmi les deux solutions monarchiques qui méritent les sympathies des conservateurs et sur lesquelles la France devra un jour se prononcer, suivant nous, directement, nos préférences sont acquises à l'Empire dont la politique intérieure a toujours donné satisfaction aux aspirations de notre pays.

Tel est, en quelques mots notre programme. L'heure n'est pas aux longs discours.

Nous vous dédions ce journal Etcheco Yaunac. Tous ceux qui l'écriront vivent au milieu de vous, mêlés à vos travaux, à vos joies et à vos peines. Accueillez-les avec confiance comme un ami sincère. En entretenant dans vos foyers le respect de nos traditions, en vous aidant de notre mieux à défendre vos intérêts, en faisant luire à vos yeux le gouvernement qui rendra à vos maisons la prospérité perdue, nous n'aurons d'autre ambition que celle de vous servir et, par vous, le pays dont vous êtes l'honneur et la force.

Louis Etcheverry

Eskualdunek egina euskaldunentzat, ohidura zaharren alde eta bereziki erlisionari osoki atxikia, laborarien fagoretan jokatu da. Argi dago euskal gizarte "demokratikoak" (?) hiru larderia mota behar dituela : aita familiako (pater familias) edo etxeko nagusien larderia, apezten larderia eta gobernuaren larderia, hau familiaren eta erlisionaren gerizatzaille delarik. Ez da halakoa errepublika lehenbiziko bi larderien kontra doalakotz ; kontserbadore dela dio Louis Etcheverry-k eta nahiago duela Imperioa Frantziaren gobernatzeko eta ez errepublika eta ez erregea.

Eskualduna-ren lehenbiziko hamar aleak hamabortz egunetik agertzen dira, azkena uztailaren 30-ekoa, eta 1887-ko abuztuaren 6-etik astekari bilakutzen da. Kaseta kontserbadore horretan agertzen da 1890-eko apirilaren 11an, Petri EcheGARAY batek idatzitako artikulua "*Eskualduna zertaric ageri den*" daukan tituluarekin.

Bi zati dauzka idazki honek. Lehena bukatzen delarik esaldi honekin : « *Lehenago nora nahi yuanic, Eskualduna ageri zen bere mintzaitetic, bere hurratsetic, bere larruaire garbi eta begitarte alegeratic, bere beztiduratic* ». Idazleak adierazten du zer zen edo, hobeki erran, nor zen edo zertarik ageri zen euskalduna.

Bigarren zatia hasten da « *Bainan orai denborarekin...* » erakutsiz zer edo nor den oraiko euskalduna, zer itxura duen Euskal Herriak. « *Lehen eta orai* » : hori da aspaldiko leloa edozein erresumatan erabilia, gehienetan iraganaren goraiatzeko eta oraiaren jorratzeko. Ideia horretan dago Petri EcheGARAY artikulua idazlea.

D) Iragan zoriontsua

XIV. mendean hasirik apologistek asmatu dute Euskal Herriarentzat eta euskaldunentzat iragan historia xoragarria. Apologisten garaia ez da oraindik bukatua XIX. mendearen azken urteetan. Petri Echeagaray-ek hartzen eta bereganatzen ditu orduan zabiltzan ideiak.

Europako arrazarik zaharrena. Egia erran iduri luke ez duela sobera espanturik egiten, berteze batzuk aldarrikatzen zutelarik euskaldun jendea zela munduan zen arrazarik zaharrena.

Adibidez, hona Oxalderen bi bertsu euskara hizkuntza zaharra aipatuz adierazten baitu denbora berean euskaldunen zahartasuna.

*Hizkuntzetan lehena nundik zen athera ?
Hori dakienikan munduan othe da ?
Eskualdunak zirenez Adam eta Eva,
Hoi erran dirona da Jainko Jauna bera.*

*Eskuara zen, iduriz, lehenik munduian
Hortaz mintzo baitziren Noeren barkuian ;
Lurra ikus orduko, mendi inguruian,
« Hara ! Hara ! » zioen eskuaraz orduian.²*

Beti Iparraldean eta garai berean egoiteko hor daukagu lekuko bigarren bertsulari bat euskarari eta euskaldunei loturikako mitologiak hezia : euskaldunak Noe-ren ganik heldu zirela. Hala dio Dibarrart-ek *Eskualdunak* deitu kantuan :

*Noeren seme bat zen Japet deitzen zena ;
Eta Tubal Japeten seme bortzgarrena ;
Hura zen Espainia beretu zuena :
Hartarik da ethortzen gure hastapena.*

*Tubalen haurrak ziren Tubaloak deitzen,
Geroxago Iberak erraiten zioten ;
Iberek banderatzat kurutze bat zuten
Tubalen izenaren lehen letra baitzen.*

*Tubal eskualdun zela da segurtamena,
Kurutze hark baitzuen lauburu izena,*

² *Khantu berriak*, Celte basque 166. Pariseko B.N. Hirugarren aipamena ukan zuen kantu honek Donibane Lohizuneko euskal bestetan, 1894-eko abuztuan.

*Tubalen haurrek berek eman ziotena :
Eskuaraz emaitako hori zen zuzena !³*

Ikus daiteken bezala “*eusko iberismoaren*” teoria agertzen da, Humbolt-ek sortua XIX. mendearen hasieran eta luzaz iraunen duena. Uholde nagusitik Noe-ren eta haren seme baten (Japet) eta ilobaren (Tubal) bitartez heldu zaigu hizkuntza zaharra nahiz aitortzen duen Petri Echegaray-ek euskaldun arrazaren “*ethorkizuna*” galtzen dela menderen mendetan eta nihork ez dakiela segurtantxarekin nondik jina den toki haukietara. Halere euskaldunen jatorriaren misterioa goraiatzan du, mito bilakatzen den sorkuntza.

Historian sartzen da euskaldun jendea Erromano-ekin, orduz geroz baitakigu non bizi diren « *oraiko ber mendietan, oraiko zelhai haranetan* ». Horrekin artikulua egileak finkatzen du lurraldea, bi milako bat urtez, den gutienik, euskalduna bizi delakotz eremu mugatu batean.

Euskal gizartea agertzen zaigu itxura klasikoan : « *oro artzain eta laborari ziren* ». Ongi doa jadanik aipatua izan den Euskal Herriaren aurpegiarekin : « *oraiko ber mendietan* » (han bizi zitezkeen artzainak) « *oraiko zelhai haranetan* » (han laborariak). Iduri luke Euskal Herriak ez duela itsasorik ezagutzen, arrantzalerik ez dagoela, ofizialerik ere ez. Artzain eta laborari, ardi eta ogi beraz, bizi molde “*ximple*” baten eremaitako. Bertze mito bat daukagu hemen agertzen dena : “*le bon sauvage*” edo salbai ona, XVIII. mendetik datorrena, ugarte berezi batean sanoki bizi den salbai ona, bertze jendeetarik aparte, zibilizazioak eta gizarteak kutsatu ez duena.

Dena ederki doa : ez dago eztabaidarik euskaldunen artean, sendimendu onez beteak baitira, beti zuzenki jokatu “*usantchac eta legeak*” errespetatuz.

Gizarte goxo hori Euskal Herria den ugarte berezian bizi da, bere baitan, etxeko etxeko “*aberen eta lurretako ekhoizpenetarik*”, bizitzeko doiarekin, deus erosi gabe kanpoan, harremanik ukan gabe atzerritarrekin. Denak etxetik jalgitzen ziren : jatekoa, edatekoa, jauntziak ere bildu lihoarekin egiten baitziren behar ziren oihalak.

Gizarte goxo eta gerizatu horretan badabila jendea, jende ona dudarik gabe, sana ere. Hala dio Petri Echegaray-ek bat bertzearen ondotik aurkezten dituelarik. Jendetasunak manatzen duen bezala emazteak lehen :

- neskaxetarik hasten da, haien berezitasuna dela buru-estalki edo burukorik gabe agertzea : « *bi trena bilo eder bizkarrari behera zaiotela* » ; osagarri onekoak dira, halaber udako beroak eta neguko hotzak jasanez alegeraki, kasik deus aldatu gabe jauntzietan « *choilki neguan galtzerdi ile laburrak zangoan eta espalakoinac oinetan* ».

³ *Eskualdunak*, Celte basque 166. Pariseko B.N. MS : 50-51. Kantu hau aurkeztu zuen Dibarrart-ek 1891-ako Lore Jokoetan Iurretan eta bigarren aldikotz Donibane Lohizuneko euskal bestetan, 1894-ean.

- arraza onekoak ere emazte ezkonduak, herabetasun batekin halere, burukoa jauntziz eta garkola estaliz buruko buztanari esker. Badago emazte ezkonduetan etxeko andereak erakutsi behar duen zuhurtasuna, kontutan hartuz ezkondua dela eta, beraz, "jaun eta jabe bat" baduela.

Ez dira hain aipagarriak gizonak : gerrikoen koloretarik kontura daiteke gazteak diren ala ezkonduak : gorria ongi doa gaztearentzat, urdina ezkonduentzat eta gizon ala emazteak xahartzen direlarik kolore xuriak emaiten die behar den itxura "*bilo lekhaïn luchetic*" gizonezkoentzat, "*buruko xurietarik*" emazte "*atshotientzat*", "tx" ttipitzaileak maitasunez betetzen duelarik haiekilako sendimendua.

Pentsa daiteke mutil euskaldunaren itxura berdina zaukala Mixel Elissamburu-k bere *Zinta zeta gorria* deritzan kantuan :

*Zer mutila nizana,
Zinta zeta gerrian !
Aise ene omena
Hedatu da herrian.
Nor etor ene gana
Ni balio nauena ?*

Espantu pixka batekin hasten balinbada kantua espantu bera aurkitzen da seigarren bertsean :

*Loria zaut, loria,
Apaintzen nizanian
Zeta zinta gorria
Emaitia soinian !
Egiazki ordian
Zerbait baniz mundian.*

Denak hor daude, neskak, emazte ezkondua, mutiko gaztea, gizon ezkondua, gizon ala emazte xaharrak, hots, gizarte osoa, akatsik gabekoa eta, gehiago dena, elgarretaratzen zirenak, elgarrekin ezkontzen "*eskualdunak eskualdunekin*", arraza nahastekatu gabe, kanpoko kutsadurarik gabe. Bakoitzari emaiten zitzaion dotea, aitamek hautatzen zuten premua edo andregai, bertze haurridek onartzen zuten burrasoen iritzia "*sort-etchea kontserbatzeko gisan*".

Zerrenda luze honen ondotik ikus daiteke Louis Etcheverry-k, *Eskualduna*-ren lehen zenbakian aldarrikatu zuenetik ez dela urruntzen Petri Echeagaray : arraza, familia, aita familiaren larderia. Halere, kurioski, ez du sekulan aipatzen erlisionea, Louis Etcheverry-k emaiten ziolarik lehenatasuna. Euskaldunaren seinale ageriak lehen zati honen bururatzean emaiten dira : mintzaira, hurratsa, larruaire, begitarte eta beztidura. Bortz seinale horietarik bitan larruaire eta begitarte izenak izen ondoz apainduak dira : "*garbi*" larruaireari lotua aditzera emaiten du arrazaren sanotasuna ;

“alegera”-k begitarteari datxikola adierazten du euskalduna zoriontsua dela, ongi bizi dela.

Horiek hola, nola ez aipa Elissamburu-ren “*Ikusten duzu goizean*” kantu hain famatua, Euskal Herri guzian ezagutua. Laborari etxea, mendia eta “*nahiz ez den gaztelua*”, sor-leku maitagarria. Han bizi direnak : etxeko nagusia, haren andrea, Maria, kalitatez betea, alaba Kattalin, neskatxa euskalduna, ama idurikoa, amarekin ongi doana, Piarres semea, artzain ona, mutiko ernea, etxea galduko ez duena.

Ez dezagun ahantz etxeko nagusiak berak aldarrikatzen duena :

*Ez da munduan gizonik,
Erregerik ez printzerik,
Ni bezain urusa denik ;
Badut andrea, badut semea,
Badut alaba ere nik ;
Osasun ona batetik
Ontasun aski bertzetik
Zer behar dut gehiago nik ?⁴*

Ametsetako etxe, jende, gizartea, Elissamburu-k aipatuak 1862-an bizi dira oraindik Petri Echeagaray-en artikuluan. Parabisuaren itxura hartzen dute, toki goxo, atsegina, zorionez betea. Hala zion Dibarrart-ek bertsu batean :

*Lurreko parabisua baita Eskual Herria,
Eder bezain aberatsa eta maitagarria,
Halaber dugu mintzaia nehon paregabia,
Gure probentzietarat Iberek ekharria.⁵*

Bainan parabisu horren galtzen ez ote da ari Euskalduna ?

II) Oraiko egoera

« *Bainan orai* »... (hola hasten da idazkiaren bigarren zatia) eta segitzen du « *Eskual Herria frantses bilhakatzearekin usantcha zaharrac galdu dire* ». Beraz, hasia da iraultza : lehendik oraiera, atzotik egunera, denak aldatuak dira. Erran nezake bekatu mortalean bizi dela euskalduna. Atzerritarrak sartu dira Euskal Herrian eta Euskal Herria ez da gehiago lehengo lur zaindua, euskaldunen lur berezia, kutsadurarik gabekoa, egiazko parabisua, lur sakratua. Bekatorosak, euskaldun nexkatxak : « *Asko tokietan Eskualdun*

⁴ J.-B. Elissamburu, «*Ikusten duzu goizean*» 5. bertsu, *Kantu, kanta, khantore*, Baionan, 1967, 20 or.

⁵ P. Dibarrart, “*Eskual Herria eta Eskuara*”, 8. bertsu, *Piarres Ibarrart-en koblak*, Baiona, 1948, 14 or.

nechkatchac nunbaitic yinikako gizonekin ezkondu dire Kaskoin, Biarnes, Espagnolekin ». Horretan datza kutsadura. “Nunbaitic yinikako”... ezagutua ez den leinu edo arrazako gizonekin ezkonduz nahasketa horrek denak galtzen ditu, denbora berean “*usantcha zaharrac*” galtzen baitira eta “*moda berri estranyerrec bazter guziac hondatzen*” baitituzte.

Nola ulert dezakegu zati hori ? Ez ote dira euskaldun neskatxak Eba berriak ? Nunbaitik jinikako gizon horiek ez direa sugea idurikoak ? Hala nola Ebak galarazi zion parabisua Adam-i, halaber XIX. mendeko azken urteetan Eba berriek galarazten diete Euskal Herria den parabisua euskaldunei. Auzi horretan prokuradore edo fiskalarena egiten du Petri Echegaray-ek. Emazteak dira hobendun, haien bitartez sartzen dira atzerritarrak, Euskal Herriko mugetan bizi direnak : iparrean Kaskoinak, ekialdean Biarnesak, hegoaldean “*Espainiolak*”. Non ezartzen du hegoaldeko muga ? Beldur naiz Bidasoan eta Pirineotan jartzen duela jakinik berak aipatu duela lehenago “*Eskual Herria frantses bilhakatzearekin*”.

Egia da orduko kezka zela : Euskal Herri guzian arrotza sartzen ari zela, gero eta gehiago ausartatzen zirela ez bakarrik bizi nahiz, bainan ere manatu nahiz. Bost pa sei urte geroxago Jean Hiriart-Urruty-k agertuko du kezka bera artikulu famatu batean. Ahoan bilorik gabe hona zer zion :

« *Datxikagun hemen, gure sor-herrian, gure lurrian, gure etxeetan gure nausitasuna. Ez utz gure eremuetan arrotza, bereziki arrotz etsaia nausitzerat. Dagola bakotxa bere zedarrietan.*

Gure buruen jabe nahi badugu egon beti, jakin dezagun beldurrik gabe, behar arau mintzatzen eta egiten. Ez izan uzkur, ez herabe, jazar etsaiari, zangoa buruaren gainean nahi leraukigukenean. Eta ez badu sinetsi nahi gu girela, gu Eskualdunak herriko nagusi, jo muturrean. »

Artikulu bortitza, nahiz ñabardura ttipi bat jartzen duen arrotzen artean, arrotz arrunta eta arrotz etsaia Hiriart-Urruty-ren arabera. Arrotz etsaien kontra baliatzen diren aditzek adierazten dute Hiriart-Urruty-ren kexua : “*Jazar*” eta “*jo*”-k aipatzen dute guduka, ez ideien eztabaida, borroka fisikoa aldiz, bereziki “*jo muturrean*”-ekin, bi aditzak, *jazar* eta *jo*, inperatiboan direlarik.

Gehienetan etsaia lehen auzoa da eta hala izana da euskaldunentzat. Ugari dira etsenpluak Kaskoinak aipatzen dituztenak :

*Jende gogorrak dire guretzat Kaskoinak,
Euskaldun gaixoentzat ez hainitz kasta onak.
Gure gostuz halere jan tuzte gauza onak,
Oiloak egosiz eta errerik gaphoinak.*⁶

⁶ Martin Bidartekoa, “Espainiolak Frantzian”, *Bertsolaritzaren historia*, Etor, Donostia, 1894, II. tomoa, 679 or.

XIX. mendearen hastapenean idatzi kantuan (1813-an) Martin Bidartekoak salatzen du Dibarrart-ek hirurogeita hamar urteren buruan salatuko duena :

*Mende zaharreko ama, oi Eskuara maitia,
Kaskoin hoiien kolpetarik baduzu oinhazea,
Nahi zaituzte aurtiki eta khendu bizia
Bainan Eskualdunak zor du xutik atxikitzea.⁷*

Ikus daiteke kaskoin hitzarekin arrotzak direla aipatzen, bainan garai berean egoiteko (XIX. mendeko azken hamarkadan) Adema-Zalduby-k Hiriart-Urruty-ren eta Petri Echegaray-en kezka bera agertzen du :

*Hi haiz Eskual Herria, haritz hori bera,
Arrotza nausiturik moztua sobera.
Oi ! gure arbasoak, ez, othoi, ez beira
Zein goratik garen gu jautsiak behera.⁸*

Gai bera derabilate kasetariet, bertsulariet, non nahi agertzen direlarik holako auhenak. Halere, dirudianez, Petri Echegaray-ek salatzen ditu hobendunak euskaldun neskak arrotzekin ezkontzen direnak. Bainan arrotz horiet gizon gazteak bakarrik dira ? Ez ote da haien artean neska gazterik euskaldun mutiko gazte batekin ezkont daitekeenik ? Ez zaio hori burutik pasatzen Petri Echegaray-i. Badu orduko euskal gizartearen ikuspegi berezia, hots, girstino batzuen : emazteak galarazi zuen Parabisua, gauza berbera gertatzen zaio Euskal Herriari, emazteen gatik denak suntsitzen eta hondatzen ari dira.

Hortik galde bakarra : « *Orai nola ezagut egiazko Eskualduna* ». Galde bakarrari erantzun bakarra : deituratik. Hori da Petri Echegaray-en teoria. Jakinik deiturak “*etcheen kara molduratic edo heyen finkagia aurkimenetic*” datozela emaiten du deitura euskaldun zerrenda luze bat, deitura bakoitzak bere erroa daukalarik, hala nola *etxe* (Etchetto, Etchebeltz, Etchechoury, Etchezahar, Etcheberry), *bide* (Bidart, Bidondo, Bidegain), *iturri* (Ithurry, Ithurbide), *ur* (Urondo, Uhalde), *haritz* (Harismendy, Haritzalde, Harispe), *larre* (Larre, Larrondo), *mendi* (Mendy, Mendiondo). Zerrenda luze horren ondotik dator Petri Echegaray-en iritzia « *Horiec oro Eskualdun izenac dire, hola deitzen diren guziac Eskualdun aitetaric ethortzen dire* ».

Aspaldian susmatu ginuena argi eta garbi orai agertzen da : bakarrik konda dena da aita, hazi emailea eta ez ama. Frantses ideologiatik dabilta artikulu idazlea, aitaren deitura bakarrik daukatela haurrek eta ez Hegoaldean bezala aitarena eta amarena. Ohidura zaharrei hain atxikia den Petri Echegaray-ek ahantzia duke zer zen, ehun urte lehenago arte, egiazko ohidura Euskal Herrian, hobeki erran Iparraldean : etxeko prima

⁷ P. Dibarrart, “Eskual Herria eta Eskuara”, 12. bertsua *Piarres Ibarrart-en koblak*, Baiona, 1948, 14 or.

⁸ G. Adema, “Agur eta ohore Eskual Herriari”, *Bertsolaritzaren historia*, Etor, Donostia, 1984, II. tomoa, 257 or.

batekin ezkontzen zen mutikoak galtzen zuela bere deitura eta hartzen zuela emaztearen etxeko deitura. Adibide baten emaitera noa : Eskiulako Balent bat ezkondu zen Barkoxeko Topetian. Balent deitura galdu zuen eta hartu Topet. Topet bat ezkondu zen Etxahunera eta Etxahun deitura hartu. Semea normalki Etxahun deituko zen eta hala izan da Barkoxtar guzientzat, halaber euskaldun guzientzat, nahiz frantses iraultzaren gatik atxiki izan behar zuen aitaren deitura, paper zaharretan agertzen delarik “Topet dit Etchahoun”, frantses ortografian dudarik gabe.

Frantses iraultza arte leinuak, etxondoari loturik, etxondoaren izena hartzen zuen eta beraz, ez zen agertzen ez aitaren izenik eta ez amarenik, etxearena baizik. Frantses iraultzak lehentasuna emaiten dio aitari, gizonari, hazi emaleari, emazteak eta amak baztertuz. Aspaldidanik hori zilegi da Frantzian lege batek edo ohidura zahar batek debekatzen diola emazteari, egiazko erregina izaita eta ez bakarrik erregearen emaztea. Ildo horretarik doa frantses iraultza eta gero Napoleonen lege zibila. Horretan bizi da Petri Echegaray, horretan murgildua da.

Orai arte, aita euskalduna izanez, —ama ez dakigu bainan euskaldun izan zitekeen— seme-alabak euskaldunak dira, bainan bere teoriaren hobeki azaltzeko badoa Petri Echegaray bertze kasu batetara : aita erdalduna —behar nuke erran arrotza— eta ama euskalduna, nunbaitik jinikako gizon batekin ezkondua. Orduan deitzen dira “Candau edo Casenave, Gomez, Lerissa, etc...”. Amaren altzoan ikasi dute euskara, ongi badakite ttipi ttipitik ikasia dutelakotz. Lehentxago bezala Petri Echegaray-ek galde bakarra egiten du. « *Badire aita kaskoinetaric eta ama eskualdunetaric sorthuac : horiec oro ez direa Eskualdun egiazkoak ?* ».

Galde bakarrari erantzun bakarra eta deplauki emana : « *Ez, ez dire hala, erran behar dut klarki* ». Argi eta garbi dago artikuluan azaltzen den teoria arrazakeriaz betea dela, orduan Gobineau-ren ildotik doana. Lehen, mintzaira, hurratsa, larruairia, begitarrea (hiru azkenak antropologia fisikoaren bidetik doatzi) beztidura ziren ezaugarri nabarmenak ; orai deitura bakarrik, aita nagusi, etxeko jauna jaun eta jabe, emazteak osoki bazterturik. Oroit gaiten ez zutela bozkatzeko eskubiderik emazteek, gizonaren menpean bizi zirela, bazela holako mespretxu bat haientzat. On ziren etxean egoiteko, etxeko gauzez arduratzeko, haur egiteko eta hazteko. Gogora dezagun Louis Etcheverry-k idazten zuena hastapeneko lehen artikuluan : « *Le peuple basque est une société démocratique qui réclame une tripe autorité pour subsister : l'autorité sociale des chefs de famille...* ». Horretan gaude Petri Echegaray-ekin.

Gehiago dena, mintzaira ere baztertua da, segitzen duelarik honela : « *Ez da aski eskuararen yakitea Eskualdun izaiteko* ». Berak ere, omen, erdara badaki eta ez da “*espagnola*”. Pentsa daiteke frantsesa ere badakiela. Ez da behar bada beharrezkoa frantsesaren jakitea, frantses izaiteko edo frantsesaren jakiteak ez du erran nahi frantsesa zarenik. Holako arrazoinamendutan sar gaitetzke Petri Echegaray segituz. Orai heldu da azken hitza : « *Beraz Eskualdunaren marka edo seinale bakharra da izena edo deithura* ».

Zer diote iritzi horretaz ene euskaltzainkide Davant, Kintana, Knörr, Krutwig eta Villasante jaunek ? Euskaltzain dira, euskara zaintzen dute, euskarari eskaini diote beren bizi guzia, bainan holako deiturak ukanez ez dira euskaldunak Petri Echegaray-en arabera, euskaldunaren seinale bakarra baita deitura.

Geroztik aldatu dira iritziak eta Krutwig jaunari eskaintzen baitiot artikulu hau, eskaini nahi diot 1983-an publikatu nuena *“Etre basque”* deritzan liburuan. Frantsesez idatzia izanez eta baitakit Krutwig jaunak ongi menderatzen duela frantsesa, hizkuntza horretan uzten dut.

« Etre basque, se sentir basque suppose la reconnaissance d'un état de fait souvent lié à une géographie, à une histoire ou encore à une communauté linguistique. Les motivations peuvent être différentes pour chacun.

D'aucuns se pensent basques parce qu'ils sont nés au Pays Basque, même de parents “étrangers” au pays. Et même s'ils ne parlent pas pas l'euskara, ils se sentent de “nationalité” basque parce qu'ils considèrent que leurs racines plongent dans cette terre basque, ce village ou cette ville où ils vivent. Il n'y a aucune raison de ne pas les considérer comme tels.

D'autres, nés de parents basques, vivent loin du pays, fils qu'ils sont de ces “exilés économiques”, membres à part entière de cette diaspora abondamment répandue à travers le monde entier, des rives du Pacifique jusqu'à celles de l'Atlantique, en Amérique, Europe ou autres continents. Ils ont souvent oublié ou, peut-être, n'ont-ils jamais appris la langue paternelle ou maternelle, mais ils se sentent basques par filiation. Pourquoi ne le seraient-ils pas ?

Il y a ceux qui sont nés au Pays Basque, de parents basques, ces fils et filles d'euskaldun pour lesquels n'a pas été assurée la transmission du langage ancestral, soit que leurs parents aient cédé à la vague de francisation ou d'hispanisation due en grande partie à l'école, aux mass-media, à l'environnement parfois, soit qu'ils en aient eux-mêmes la pleine responsabilité. Qui leur refuserait le droit d'être basque ?

Il y a enfin les euskaldun, ceux qui sont un maillon de plus dans la très vieille chaîne de la transmission linguistique, qui parlent naturellement en famille ou ailleurs la langue ancestrale, ceux qui n'ont ni peur ni honte de la parler, ceux qui veulent mieux l'apprendre en l'étudiant, ceux qui, l'ayant oubliée, font l'effort nécessaire pour la reconquérir, ceux qui, venus d'ailleurs en terre basque trouvent leurs lettres de naturalisation en l'apprenant et, ce faisant, ont scellé un pacte d'amour avec l'Euskal Herri. Car il est véritablement euskaldun celui qui possède la langue basque et qui, s'en servant, la sert du même coup.

Les habitants de l'Euskal Herri sont-ils tous des Basques ? Chaque pays possède sa part d'étrangers mais le Pays Basque n'étant pas un Etat, seule compte la

“nationalité”, non point la citoyenneté. Etre basque c’est se considérer comme membre de la “nation” basque, même si l’on est de citoyenneté française, espagnole ou américaine, c’est avoir pleine et claire conscience de faire partie d’un peuple, d’une communauté sociale, spirituelle et affective à laquelle nous attachent des liens de sang, ou d’esprit ou de cœur. La communauté linguistique accuse la différence. On peut être basque et non point euskaldun. Il ne suffit pas de naître basque, il ne suffit pas d’être basque, encore faut-il vouloir être ou vouloir devenir euskaldun. »

Ikus daiteken bezala deiturak balinbadu zer bait ikustekorik euskaldungoarekin ez da batere seinale bakarra Petri Echeagaray-ek zion bezala. Azter ditzagun kasu guztiak.

- Euskal Herrian sortu direnak aitamak *“nunbaitik jinikakoak”* izan arren, baina sort-herriari atxikiak, ingurumeneko lurra berea daukatela. Euskara jakin ala ez, uste dut Sabino Arana-Goirik sortutako hitza erabiliz euskotarrak direla, *tar* atxizkiak ardierazten duelarik nor non sortua den. Erran nezake badutela horiek sort-herri eskubidea edo lur-eskubidea, orai Frantzian asko aipatzen den *“le droit du sol”*.
- Atzerrian sortuak, atzerrian bizi direnak, edonon Europan ala Ameriketan, burraso euskaldunak ezin biziz Euskal Herriatik joanak. Euskara jakinik ala ez *“Baskoak dira”* - Bernat Etxeparek dion bezala - leinuz edo odolez. Odol-eskubidea daukate. Bertze batzu *“Français de souche”* diren bezala oraiko mintzatzeko maneraren arabera, aldarrika dezakete *“Basques de souche”* direla, deitura euskalduna izan ala ez.
- Aitamak euskaldunak eta Euskal Herrian sortuak nork ukatuko die seme-alaba horiei euskotar izaita. Jakin dezaten euskara ala ez, bai sort-herri edo lur-eskubidea, bai odol-eskubidea daukate.
- Euskal Herrian sortuak dira, aitamak euskaldunak dituzte, ttipi ttipitik euskaraz mintzatu dira familian, eskolan edo ikastolan gero, lagunaren artean, kalean nola lantegian. Horiek ez dira euskotarrak bakarrik, horiek euskaldunak dira, egiazko euskaldunak, arbasoen mintzaira maite dutenak, euskarari lehentasuna emaiten diotenak nahiz bertze mintzaira batzu jakin. Iparraldeko adibide batzuren hartzeko, haien artean ezarriko ditut Moulrier *“Oxobi”*, alegia egile famatua, Lafitte kalonjea gramatikalari eta idazle ospe handikoa, Mixel Labéguerie euskal kantu berriaren sortzaileetarik bat. Hiruak euskal idazleak, hiruek euskaldun eta euskaltzale suharrak, hiruek daukatelarik beren leinuan *“nunbaitik jinikako”* norbait.

Euskotar izaiten ahal zara eta ez euskaldun, Euskaldun baino euskotar gehiago bada Euskal Herrian. Euskotarren eginbidea da euskaldun bilakatzea, euskaradun izaita. Aipa dezake euskotarrak, bai sort-herri edo lur-eskubidea, aipa dezake berdin odol-eskubidea, aipa ditzazke bi eskubideak, euskararik ez balinbadaki euskotar geratuko da eta ez euskaldun, euskaldunaren seinale bakarra delakotz euskararen jakitea, euskaraz mintzatzea, euskara maitatzea.

Jean HARITSCHELHAR